

Eusko Jaurlaritzaren 2012-2016 bitarteko ekintzaren balorazioa eta hurrengo legislaturarako proposamenak

ELAren Nazio Batzordearen agiria

Bilbo, 2016ko irailaren 8a

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Eusko Jaurlaritzaren 2012-2016 bitarteko ekintzaren balorazioa eta hurrengo legislaturarako proposamenak

SARRERA	3
----------------------	----------

A) 2012-2016 LEGEGINTZALDIKO EUSKO JAURLARITZAREN LANA	3
---	----------

1. Berton erabakitako aurrekontu-politika	4
2. Berton erabakitako enplegu-politika	4
3. Gizarte-prestazioak	5
4. Osasun eta hezkuntzako gastu publikoa	5
5. Eskubide sozialak legez finkatzea	5
6. Zerga-politikaren aldaketa bultzatzea	6
7. Demokrazian sakontzea, gardentasuna eta gizartearen parte hartzea	6
8. Zorraren auditoretza	7
9. Lan-baldintzak eta enplegu publikoaren bilakaera	7
10. Finantza-sistema	8
11. Autogobernua	8
Ondorioak	9

B) GOBERNU-EKINTZARAKO KONPROMISO KONKRETUAK	9
---	----------

1. Berton erabakitako aurrekontu-politika, soziala eta genero ikuspuntua aintzat hartzen duena. Zorraren auditoretza	9
2. Zerga-politikako aldaketa bultzatu	10
3. Gizarte-prestazioak eta eskubide sozialak legez finkatu	10
4. Berton erabakitako enplegu- eta prestakuntza-politika	11
5. Negoziazio kolektiboa eta elkarriketa soziala	11
6. Demokrazian sakontu; gardentasuna	12
7. Arlo publikoko lan-baldintzak eta enplegu publikoaren sustapena	12
8. Finantza-sistema	12
9. Estatus politikoa	12

SARRERA

Duela lau urte, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderen aurretik, ELAk agiri bat zuzendu zien indar politikoen Lehendakari gaiei. Agiri hartan Eusko Jaurlaritzara iristekotan hartu beharreko konpromiso batzuk jaso genituen. Halaber, bilera bat eskatzen genuen agiriaren edukia aztertze aldera.

Aldi hartan ere ELAk aurreko Jaurlaritzaren ekintza juzkatu zuen, hain zuzen Patxi Lopezena, legislatura hasieran proposatu genizkion aldarrikapenei zegokienez.

Oraingoan ere, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak 2016ko irailaren 25erako deitu direlarik, beharrezko jo dugu joan den legislatura honetan Eusko Jaurlaritzak egindako lanaren balorazioa egitea, eta hainbat neurri zehatz proposatzea, gure ustez hauek ezinbestekoak baitira euskal biztanleriaren bizi-kalitatea, enplegua eta justizia soziala hobetzeko.

A)

2012-2016 LEGEGINTZALDIKO EUSKO JAURLARITZAREN LANA

Hasteko, gogora daiteke Urkullu lehendakari gaiak eta bere alderdiak, EAJk, erantzun ere ez zigutela egin agiria eta bilera eskaria igorri genienean, 2012ko hauteskunderen aurretik. Ez zen izan horrela jokatu zuen alderdi bakarra: PSE-EEk ere ez zuen erantzun.

Erantzun eza ez da anekdota hutsa. Legislatura honetan Lehendakariak uko egin izan dio ELArekin biltzeari, argudiatuz ez deritzola egoki biltzea bere gobernuaren ekintzarekiko posizio kritikoa publiko egiten duen erakunde batekin. Oso larria da, gure ustez, Lehendakariaren moduko agintari batek horrela jokatzeko, erakunde desberdinekin elkarrizketa eta dialektikazko harremana izan beharko bailuke, bere politikak onartu zein ez.

Gobernu-ekintzari dagokionez, ELAk 2012ko agirian aipatu zituen puntuekiko Jaurlaritzak oso kontrako ildoak hautatu du.

1. Berton erabakitako aurrekontu-politika

ELAk eskatzen zuen aurrekontu-politika berton taxutu zedila, eta ez Madrilen hartutako erabakien arabera. Halere, Eusko Jaurlaritzak:

- Espainiar Gobernuak galdegindako murrizketak ezarri izan ditu. 2016-2017 ikasturterako ratioen gehikuntza salbu, Jaurlaritzak ezarri egin ditu Madrilek gobernu autonomikoei exijitutako erabaki guztiak.
- Rajoyrekin hitzartu du Espainiako Gobernuak gainerako autonomia-erkidegoentzat ezarritako defizit publiko muga berberak aintzat hartuko dituela. Akordio hau aurreko hiru Aldundien parte hartzearekin iritsi zen (EAJ Bizkaian, PP Araban eta EH Bildu Gipuzkoan).
- AHTra bideratutako diru-jarioa moztu ordeztu, Gipuzkoako tarterako kopuruak gehitu egin ditu; haatik, espainiar Gobernuak Jaurlaritzari ez dizkio ordaindu gutxienez 1.200 milioi euro, teoriarik aurreratu direnak.
- Erabakitako aurrekontuak bete ere ez dira egin. Defizita betetzeko lehentasuna medio Jaurlaritzak doikuntzak eta murrizketak ezarri ditu onartutako aurrekontuetan.

2. Berton erabakitako enplegu-politika

ELAk eskatu zuen giza-baliabideak eta ikuskaritza zein zigorak asko gehitu behar zirela prekaritateari jazartzeko eta lan-segurtasun eta -osasuna babesteko. Halakorik ez da gertatu.

Enplegurako prestakuntzan, berriz, Eusko Jaurlaritzak azkeneneraino estatuko ereduaren alde egin du, baita aplikatu ere (eredu honetan patronalak eta CCOO zein UGT sindikatuek beren buruari funtsen zati handi bat, gero eta handiagoa, esleitzen zioten). Aburto eta Toña sailburuek pribatuan aitortzen zuten arren eredu hau, zeinaren xedea erakunde horiek finantzatzea zen, txarra zela, ez dute aldatu harik eta Rajoyk Errege Lege-Dekretu bidez derrigortu dituen arte; halere, ahal zuten guztia egin dute patronalari, CCOOi eta UGTri pribilegiozko tratua emateko, eta ez dute aukera baliatu kalitatezko eredu bat garatzeko, zeinak sistema produktiboaren eta langileen beharrianak asetuko dituen.

Eusko Jaurlaritzak erabaki du espainiar Gobernuak ezarritako enplegu eta lan merkatuko bitartekaritza politikak aplikatzea, Lanbide Estatu mailan hartutako erabaki politikoen gestoria huts bihurtu delarik. Horrela, berton erabakitako enplegu-politikak egiteko aukera baztertu du.

ELAk nabarmendu nahi du Lanbideren diseinu negargarria, zeinari CCOOk eta UGTk sostengua eman dioten, ez dela inola ere konpondu Urkulluren gobernuaren ekintza medio.

3. Gizarte-prestazioak

Legislatura honetan Eusko Jaurlaritzak mantendu egin ditu Patxi Lopezek ezarritako gizarte-prestazio murriztuak (DBE, GLL, etab.). Baina gainera beste murrizketa batzuk ere egin ditu:

- DBEa kudeatzeko irizpide murriztaileak erabili ditu, sarri legea eta gizarteko behartsuenen eskubideak urratu dituelarik.
- 2016ko aurrekontuak eta Etxebizitza Legeak laguntza ekonomiko berri bat ezarri zuela baliatuaz (legeak hau ez zuen zehazten), erabaki du laguntza hori arautzen denetik Etxebizitzarako Prestazio Osagarria izateko eskubidea bertan behera geratuko dela. Prestazio berria proposatu den dekretu-zirriborroan den bezala onartuko balitz, EPOa jasotzen duten pertsona gehienek ezin izango lukete etxebizitzako prestazio berria jaso.
- Gizarte-zerbitzuetako langileek ahalmena dute eskakizunak betetzen dituzten pertsonen modu arbitrarioan laguntzak ukatzeko.

4. Osasun eta hezkuntzako gastu publikoa

ELAk eskatzen zuen osasunera eta hezkuntzara bideratutako gastu publikoa Europar Batasuneko batez besteko mailarekin parekatu behar zela, hain zuzen urtean 1.458 eta 835 milioi euro gehiago, hurrenez hurren.

Alabaina, Eusko Jaurlaritzak 2016ko aurrekontuan 2011n baino diru gutxiago aurreikusi du Osasun eta Hezkuntzarako, ondoko koadroan ikus daitekeenez. Ondorioz, 2016an osasun eta hezkuntzako gastu publikora bideratzen den aberastasunaren zatia (BPGaren %4,8 eta %3,6, hurrenez hurren) azken hamarraldiko apalenetakoa da, eta europar batez besteko mailatik gero eta urrunago dago.

Osasun eta hezkuntzako gastu publikoa. Eusko Jaurlaritza. 2011-2016. Milioiak eta BPG %

	2011	2012	2016
Osasuna	3.416 (%5)	3.365 (%5)	3.416 (%4,8)
Hezkuntza	2.716 (%4)	2.625 (%3,9)	2.602 (%3,6)

5. Eskubide sozialak legez finkatzea

ELAk galdegiten zuen legez aitortu beharra zegoela menpekotasun egoera guztiak kalitatezko zerbitzu publiko baten bidez artatzeko eskubidea; 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzat eskatzen diren hezkuntzako plaza guztien estaldura sare publikoan; alokairu sozialeko etxebizitza bat izateko benetako aukera (bizileku hutsen gainean zerga

penalizazio handia ezarriaz), eta lan, familia eta pertsonaren bizitza kontziliatzeko laguntza ekonomiko duinagoak.

Horretatik ezer ez da egin. Gainera, Etxebizitza Legearen onartu zenean (EH Bildu, PSE-EE eta UpyDren aldeko botoez) EAJ eta Eusko Jaurlaritzak aurka agertu ziren. Jaurlaritzak legea baliatu du gizarte-prestazioak murrizteko (aipatu dugun legez). Gainera, Auzitegi Konstituzionalak kautelaz legeko hainbat puntu eten zuelarik, Jaurlaritzak berehala men egin zion eteteari, izan ere, hobekuntza sozialak zekartzaten eta bera aurka agertu zen atalei buruzkoak baitziren.

6. Zerga-politikaren aldaketa bultzatzea

ELAren iritziz beharrezkoa zen Eusko Jaurlaritzak baliatzea Finantzen Euskal Kontseiluan eta Zerga-Koordinaziorako Organoan zuen presentzia zerga-politika goitik behera aldatzeko. Halaber, sindikatuak eskatu zuen Legebiltzarrerara lege bat eraman behar zela zergak bertan erabakitze aldera (ez lurralde bakoitzean).

Eusko Jaurlaritzak, ordea, zerga-politika kontinuista egin du, zeinetan lehengotan jarraitzen den: errenta altu, enpresa eta kapitalentzako pribilegiozko tratu onartezina, eta soldatapeko errenta ez direnen iruzur fiskal handia (areago, iruzur hau areagotu egin omen da EHUko txosten baten arabera).

7Beraz, Eusko Jaurlaritzak ere ardura du Europako beste inguru batzutan baino askoz diru gutxiago biltzen duen zerga-politika honetan (eta horrek baliabiderik gabe uzten du bere ardurapeko gaietan beharizan sozialak asetzeko, esaterako osasungintza, hezkuntza, etxebizitza edo gizarte-prestazioak), zerga-sistema injustu bat mantentzeaz gainera. Horrenbestez, Ekonomia Ituna gutxiengo baten mesedetan erabiltzen da, gizarteko gehiengoaren kaltetan.

7. Demokrazian sakontzea, gardentasuna eta gizartearen parte hartzea

Atal honetan, lan-harremanei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak gizartearen parte hartzearen aurka egin du, batik bat gehiengo sindikalen kasuan. Hainbat kasu aipa genezake:

- 2014ko irailean lan-harremanen eredu berri bati buruzko agiria (Aburto sailburuaren gidaritzapean; hau gero Toña sailburuak ere berretsi zuen); honetan patronalaren aldeko posizio argiak finkatzen ziren, eta arazo nagusitzat (edo bakartzat) ELAren jarrera aipatzen zen. Paper hartan esaten zen sindikatuak diru publikoa jasotzen dutela eta, horren truke, Eusko Jaurlaritzaren gizarte-eredua babestu beharko luketela.

- Confebaski babesak eman zion jakin zenean patronalak legeak kanpo utzi nahi zituela ELA eta LAB sindikatu gisa, beren aldarrikapenen artean fiskalitatea edota Abiadura Handiko Trena zeuzkatelako.
- Eusko Jurlaritzak eta Confebask, CCOO eta UGTk 2016ko uztailaren 22an sinatu zituzten akordioak, Negoziazio Kolektiboari eta Gizarte-Elkarrikerari buruzkoak; hitza ematen dute negoziazio kolektiboan gutxiengoaren akordioak sustatuko dituztela, eta Gizarte-Elkarrikerarako Mahaia finantzatzeko dela.
- Arantza Tapia sailburuaren posizioa: esan du hauteskunde sindikaletan hautatutako ordezkaria ez dela langileen benetako ahotsa, eta aldatu beharra dagoela (Berria, 2016ko abuztuaren 6a).

Eusko Jurlaritzak erabaki du oldarkorra izango dela, ez duela inolako orekarik mantenduko, EAEko gehiengo sindikalen aurka. Lerratze hau oso larria da: oso zaila da jakitea sailburuek hitz egiten dutenean interes publikoen izenean ari ote diren edota patronalarenean.

8. Zorraren auditoretza

2016an Jurlaritzaren zorra ordaintzeko aurrekontuaren %11,1 erabiltzen zen; 2011n, aldiz, portzentaje hori %3,1ekoa zen. Beraz, 2016an zorraren ordaina (1.170 milioi euro) 2011n baino 858 milioi gehiago izango da.

Zorra ordaintzeko baliabideak gehitzean gainerako sailak murriztu egin behar izan dira. Ondorioz, Jurlaritzaren 2016ko aurrekontua, zorraren ordaina kenduta, 2011koa baino 230 milioi txikiagoa da.

Eusko Jurlaritzak muzin egin dio zor publikoaren auditoretza prozesu bat sustatu eta errazteko eskariari, baita zilegi ez den zatia ez ordaintzeko konpromisoa hartzeari ere.

9. Lan-baldintzak eta enplegu publikoaren bilakaera

Euskal arlo publikoan 2010 eta 2014 bitartean soldatapeko langile kopurua 151.100dik 129.700era erori da, hots, 21.400 gutxiago dira (Eustaten datuak). Enplegu suntsitze honek esan nahi du langileak %14 murriztu direla, eta honen zati handi bat Eusko Jurlaritzaren eremuan gertatu da.

Aurreko Jurlaritzak ezarritako murrizketak ez dira bertan behera utzi, eta negoziazio kolektiboa ere ez da berreskuratu. Erabakiak hartzerakoan espainiar Gobernuak esandakoari jarraitu zaio.

Hain zuzen, aipagarria da zein larria izan zen Eusko Jurlaritzak euskal arlo publikorako 35 orduen inguruko Mahai Orokorraren akordioa haustea erabaki izana, horrek ekarri zuen

lanaldi luzatzea, milaka lanposturen suntsipena eta gure zerbitzu publikoen kalitatearen eskatea. Erabaki hau Jaurlaritzak sindikatuon presioari esker aldatu zuen.

Halere, murrizketak bertan behera uzteko aukera ematen diotenean (esaterako, Itzarriren edota aparteko pagaren kasuan), mantendu egin ditu, agerian utziaz haien alde zegoela.

Aipatzea merezi du zer gertatu zen ELAk bultzatu zuen Herritar Legegintza Ekinbidearekin (HLE); bere xedea zen zerbitzu publikoen azpikontratetan lan-baldintzak arautu eta prekaritatea ekiditea. Eusko Jaurlaritzak uko egin zien ELAk proposatutako hobekuntzei, eta patronalik erreakzionarioenaren beharrezko laguntzaile gisa agertu zen. Izan ere, enpresa askok begi onez ikusten zuen araubide hori, enpresa piratek eragiten duten dumping-a eragozteko.

10. Finantza-sistema

Eusko Jaurlaritzaren Kutxen legegaiak ez zekarren aldaketarik Kutxen Legean, hots, aurrezki-kutxak banku bilakatzeko prozesuan. Gainera, EAEn eta Hego Euskal Herri osoan nahi dugun sistema ekonomiko eta sozialean finantza-erakundeek izan behar duten eginkizunari buruz gizartean eztabaidarik egin gabe gauzatu zen.

11. Autogobernua

ELAk autogobernuari buruz egin duen epaia lotuta dago politika neoliberalak ezartzeko egin den birakadarekin. Estatuaren inboluzioa nabarmena da gai honetan. Eusko Jaurlaritzak berak berzentralizatze politika salatu izan du, baita Auzitegi Konstituzionalaren erabilera alderdikoia ere (instantzia honen buru PPko militante bat dago): auzitegi politikotzat jo izan du. Haatik, iritzi honetatik ez da ondorio politikorik atera.

Hala da, legislatura honetan Eusko Legebiltzarrak onartutako hainbat legeren aurka jo du espainiar Gobernuak: Udal legea, aurreikuspen osagarriarena, etxebizitzakoa, enplegu publikoari buruzkoa, fracking-aren aurkakoa edota menpekotasunena, besteak beste. Hauei erantsi behar zaizkie Eusko Jaurlaritzak berak inpugnatu dituenak, Estatuak bere eskumenen eremua urratu duela uste zuelako, edota espainiar Gobernuak helegitea jarriko diela aipatu izan dituenak. Begibistakoa da eskumen-marko hau guztiz badaezpadakoa dela, eta Estatuaren alde bakarreko borondatearen menpe dagoela.

Honenbestez, Eusko Jaurlaritzak estatus politikoa berrikusterakoan aldebiko ildoaren alde egin du, baina aipatutako inboluzioa ez da inola ere leundu.

Praktikan aldebikotasunaren aldarria eginda betoa uzten da berzentralizatze estrategia gidatzen dutenen esku. Eusko Jaurlaritzak berak esan izan du estatus politikoa aldatzeko espainiar alderdi politiko handi bietako baten babesa beharko litzatekeela.

Ondorioak

Joan den legislatura honetan jarraipena eman zaie Lopez Lehendakariaren gobernuak krisian ezarritako politikei. Eusko Jaurlaritzak are gogorrago aplikatu ditu herritarrak oro har pobretu eta zerbitzu publikoak hondatu dituzten politikak.

Aurrekontu-politika hauen alde egin duten alderdiek (EAJ eta PSE-EE) izan dute EAEn Europarekiko egonkortasun akordioen ondorioz datozen erabakiak (lehentasuna defizita betetzeari eta zorra ordaintzeari, murrizketak, etab.) "kudeatzeko" ardura.

Jaurlaritzak, egin duen politikaren jakinaren gainean, informazioaren ordezkari propaganda hedatu du, eta bere zerbitzura jarri ditu hedabide publikoak (EITB taldea).

B)

GOBERNU-EKINTZARAKO KONPROMISO KONKRETUAK

Duela lau urte bezala, ELAk dei egiten die alderdi politikoei agintera iristekotan bete beharreko konpromiso jakin batzuk beren gain har ditzaten. Hitz eman dezatela neurri konkretu batzuk hartuko dituztela, ez arlo guztietan, baina gutxienik lan-ildo aski argia adierazten dutenak.

Areago, kontutan izanik Espainiako Gobernuak murrizketa gehiago erabakiko dituela EBrekiko akordioak oinarritzat hartuta. Horrenbestez, ELAk alderdi politikoei galdegiten die agertoki horretan zer egingo duten argi dezatela.

1. Berton erabakitako aurrekontu-politika, soziala eta genero ikuspuntua aintzat hartzen duena. Zorraren auditoretza

Berton erabakitako aurrekontu-politika egiteko konpromisoa, Madrilen hartutako erabakien menpeko izango ez dena. Honek esan nahi du aurrekontuak egin behar direla Madrilek autonomia-erkidegoentzat ezartzen dituen defizit publikorako mugak onartu gabe, beharizan sozialen estaldurari eman behar baitzaio lehentasuna.

Zor publikoaren ordaina lehentasuna ote den zalantzan jarri. Horregatik, zor publikoaren auditoretza bat sustatu eta erraztu behar da, eta hitza eman ez dela ordainduko zilegitzat jotzen ez den zatia. Zorraren auditoretza prozesu soziala izan behar da, zeinetan gobernuak lagunduko duen beharrezko informazioa emanaz.

Osasungintza eta hezkuntzako gastu publikoan EBko batez besteko mailarekiko dagoen aldea gainditu. Honek esan nahi du osasungintzako zuzkidurak %40 gehitu behar direla, eta hezkuntzako inbertsioak, %30; horrela BPGaren %7,2 eta %5eraino iritsiko litzateke, hurrenez hurren.

Gobernu-ekintzatik eratorritako arau guztiak (aurrekontuak barne) genero ikuspuntua aintzat hartuta taxutu.

2. Zerga-politikako aldaketa bultzatu

Finantzen Euskal Kontseiluan eta Zerga-Koordinaziorako Organoan parte hartzea baliatu egin behar da erabaki fiskal justu eta progresiboak hartzeko, euskal presio fiskala europar batez bestekoaren parera eraman arte:

- Azken urteetan errenta altuentzat eta kapitalentzat egindako zerga-beherapenak bertan behera uztea (PFEZ, Sozietateen gaineko Zerga eta Ondarearen gaineko Zerga).
- ELAk gai honi buruz egindako proposamenetan jasotako aldaketa fiskalak onartu.
- Iruzur fiskalaren jazarpena exijitu, soldatapeko ez diren errenten %25 gutxienez ikuskatuko direlarik.

Halaber, beharrezko aldaketa guztiak egin behar dira zergak (itunpeko zein itunduak ez direnak) Eusko Legebiltzarrean erabaki daitezen.

3. Gizarte-prestazioak eta eskubide sozialak legez finkatu

Gizarte-prestazioei dagokienez:

- Berariaz baztertu gizarte-prestazioak murriztuko dituen edozein erabaki hartzea.
- Laguntzen murrizketak berehala bertan behera utzi; batetik, zenbatekoei dagokienez, eta bestetik, eskakizunen ingurukoak, izan ere, jasotzeko eskubidea izateko baldintzak gogortzean hainbat jende DBL, GLL eta antzeko laguntzarik gabe utzi baitituzte.
- GLL eskubide gisa finkatu.

Legez honako eskubideak aitortzea:

- Menpekotasun egoera guztien estaldura, kalitatezko eta doako zerbitzu publiko baten bidez. 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzat eskatzen diren hezkuntza-plaza guztien estaldura sare publikoan .
- Alokairu sozialeko etxebizitza izateko benetako aukera, eta etxebizitza hutsentzako penalizazio fiskal handia.
- Lan, familia eta pertsonaren bizitza kontziliatzeko laguntza ekonomiko duinagoak.

Aurrekontu-politikan bezala, politika publikoetan ere alde bakarreko erabakiak hartu behar dira, esaterako etxebizitzari, fracking-ari, eta beste hainbat gairi buruz, eskubide

ekonomiko, sozial eta ekologikoak lehenetsiaz (behar izanez, gero, ez zaie men egin behar Auzitegi Konstituzionalaren ebazpenei).

4. Berton erabakitako enplegu- eta prestakuntza-politika

- Politikak erabakitzeko ahalmena. Enplegu-politikak berton erabaki behar dira.
- Politika aktiboak eta pasiboak. Ahalmena behar da enplegu-politika aktibo eta pasiboekin (langabezia-prestazioak) lotuta dauden arloetan.
- Enplegu-zerbitzu publikoak indartzea. Lan-bitartekaritza politika Enplegu-Zerbitzu Publikoen bidez garatu behar da; alde batera utzi behar da egungo erakunde pribatuak diruz lagundu eta finantzatzeko eredua; hauek sarritan ez dute zerbitzu egokirik ematen, eta ez dute aukera berdintasuna bermatzen.
- Enplegu-politiken programen orientazioa zeharo aldatu behar da.
- Lanbidera giza-bitarteko gehiago bideratu eta egonkortasuna eman behar zaio, prestazio ekonomikoan jasotzen dituztenei arreta egokia eman ahal izateko eta lan-orientazio eta -bitartekaritza modu pertsonalizatuan egin ahal izateko.
- Enplegurako prestakuntzari dagokionez:
 - Enplegurako prestakuntza eredua ekonomia produktiboaren eta langileen beharrezko zerbitzura jarri.
 - Lanbide-heziketako ikastetxeen eginkizuna lehenetsi eta eragotzi prestakuntza-planetako funtsak sindikatu eta patronaletara bideratu.
- ELAk politika industrialean proposatutako neurriak aplikatu, sektore honetako kalitatezko enplegua gehitzeko eta egungo eredu produktiboaren eraldatze ekologiko eta soziala sustatzeko.
- Kontratuetan gertatzen den iruzurraren jazarpenarako bitartekoak zeharo gehitu.
- Lan prekarioa orokortzea eragiten duten beheranzko lizitazioak amaiazi.

5. Negoziazio kolektiboa eta elkarriketa soziala

Negoziazio kolektiboan oinarritzko arau demokratikoak aintzat hartzeko konpromisoa: gutxiengoaren akordioak bultzatzeko aukera baztertzeari.

Politika publikoak finkatzerakoan benetako parte hartze sindikalerako bideak urratzea:

- Eremu formalean, eragin guztietarako, sindikatu bakoitzaren ordezkaritza maila berariaz errespetatu behar da. Erabakiak alde bakoitzaren gehiengoz hartu behar dira.

- Alde bateko gehiengoak parte hartzen ez duen organoek ez dute funtzionatu behar.
- Ordezkaritza patronala egiaztatzeko sistema bat ezarri.

6. Demokrazian sakondu; gardentasuna

Erreferenduma parte hartzeko modu gisa erabiltzea erabaki politikoak hartzerakoan, batik batik garrantzi handiena duten gaietan eta eztabaida gehien piztu dutenetan.

Arduradun politikoen agenda ezagutzera ematea.

Agiri ofizialak eskuragarri jartzea, publikoarentzat oro har zein gizarte-erakundeentzat.

Bateraezintasunen erregimena hedatzea.

7. Arlo publikoko lan-baldintzak eta enplegu publikoaren sustapena

Jaurlaritzaren ardurapeko eremuetan negoziazio kolektiborako eskubidea berreskuratu. Negoziatio kolektiboan iritsitako akordioak aintzat hartu. Dekretuz agintzeko aukera baztertu (lan-baldintzen alde bakarreko inposizioa).

Azken legislaturetan ezarritako murrizketa guztiak bertan behera utzi. Azken urteetan suntsitutako enplegu publikoa berreskuratu eta helburu bat finkatu, ELGEko herrialdeetako batez besteko mailarekin parekatzeko (EAEko enplegu publiko maila %14koa da; aldiz, ELGEkoa %21ekoa da). Aldi baterako enplegu tasa egungo %35etik %7raino murriztu.

ELAk bultza eta 100.000 sinadurak babestu zuten HLEko puntuak aplikatu, azpikontratazio publikoa arautzeko.

8. Finantza-sistema

Euskal finantza-sistema publiko baten defentsa: Kutzak banku eta banku-fundazio bilatzeko prozesua bertan behera uztea; Kutxabankeko akzio bat ere ezin da kapital pribatuaren esku geratu.

Finantza-erakundeen eginkizunari buruzko eztabaida bat irekitzea gizartean.

9. Estatus politikoa

ELAren iritziz beharrezkoa da autogobernuaren egoerari buruzko diagnostiko sakona egitea, baita azken hamarraldietako dinamika berzentralizatzaileak dituen eragin juridiko, politiko eta sozialei buruz ere.

ELAk gizartearen parte hartzea galdegiten du, zehatzago mugimendu sindikalarena, diagnostiko hori egiterakoan. Egungo estatusa aldatzeko aukera bakarra gizartea aktibatzean datza.

Autogobernuaren aldekoek aldebikotasuna baztertu behar dute eta lehentasuna eman behar diote Estatuarekiko konfrontazio demokratikoari, gure herriaren burujabetza nazional eta soziala irabazteko.

